

ataria

2020-05-01 • 1.231. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Etorkizun ziurgabeari langileek elkartasuna





AURKIBIDEA

Iritzia Oihana Iguaran **3**

Erreportajea Ardi esnea **6-7**

Kale Kantoitik Ainhoa Mendiluze **8**

Erreportajea Maiatzak 1 **10-17**

Iritzia **20-22**

J. Alberdi, A.Karrera eta I.Azaldegi

Olerkia Karlos Linazasoro **23**

Begirada grafikoa

Miguel Urbistondo **25**

Mingaina Txulora

Jon Imanol Etxabe **26-27**

Elkarrizketa Ruben Sanchez **28-29**



Azaleko irudia
Ibai Luque

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana eskatzen

βikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





**OIHANA IGUARAN
BARANDIARAN**
IKERLARI ETA
BERTSOLARIA

(Esp)etxe bat, norberarena

Etxeandiatarrek garbitzaileen falta sumatzen dute; *Etxezaba*tarrek es-tutzen sentitzen dituzte lorategia-ren mugak; *Etxezarret*atarrek bada-kite Amazoneko banatzaileak ez duela euren baserrirako bidea as-matuko; *Goienetx*etarrek urrunegi dute balkoia kale-tik; *Arretx*etarrenean harremanak ez dira hartu bezain emankorrak; *Etxenik*etarrek koordinazio mahaia be-har izan dute hiru hurrekin kalera nola jaitsi asmatze-ko; *Etxaid*etarrak damu dira zakur hura hartu ez iza-naz; eta *Etxeberri*etarrak larri dabiltza, sinatu berri duten hipoteka ikusten baitute metro karratu bakoi-tzean.

Etxeandiatarrak, onartzen hasi dira garbiketa lan horiek uste baino 'lan'ago direla; *Etxezaba*tarrek damu dute lorategi osoa zuhaixkaz hesitu izana inork begirik ez sartzeko (orain ezin baitute begirik atera); *Etxezarret*atarrek amonaren josteko makinari kendu diote hautsa, erosi ezingo dituzten aho-aurrekoak egiteko; *Goienetx*etarrek konstelazioak ezagutzen ikasi dute; *Arretx*etarrenean elkarrentzat zituzten ha-rriak haritzen doaz pixkanaka; *Etxenik*etar haurrak pozik daude, gurasoekin ari direlako eskulanetan, su-kaldean, bizitzan; *Etxaid*etarrak ogiaren bila kotxez joateari utzi diote eta herriko beste dendak deskubri-tu dituzte bidean; *Etxeberri*etarrak orain ari dira etxe-az jabetzen, lehen jabe izatera heltzeko ordu estrekin ez baitziren lotara baino iristen.

Ez dakit orain oso gaizki bizi garen; ez dakit, aurrez hain ondo bizi ginen ere. Ezagutu dugun mundu orde-na iraulia dago eta beldurra eman arren, ez dakit iraul-

tza baten premian ez zegoen aurrez: lanak egiten gin-tuen lehen libre, gero kontsumoak. Eta guk hautatu ditugu lotu gaituzten kateak, are diseinatu, apaindu, erosi; kateatzea guk hautatu dugula sinestearino.

Denbora agenda dela sinestera heldu gara eta egu-tegia eteteen bizitza eten zaigula sinetsarazi diogu geure buruari. Harritu egin gaitu udaberriak urteroko protokoloa mantendu izanak (nola ausartu da?), ha-

Denbora agenda dela sinestera heldu gara eta egutegia eteteen bizitza eten zaigula sinetsarazi diogu geure buruari

rritu egiten gaitu hurrek hazten jarraitzen dutela konprobatzeak eta zimurtzen ere erritmo berean goa-zela ikusteak. Ez baita denbora geratu, agenda baizik. Ahaztua genuen bizitza beste zerbaite dela, egutegie-tan sartzen tematu arren, txiki geratzen zaizkiola.

Karlos Linazasorori irakurri nion kartzelaren tamai-nak ez duela zerikusirik askatasunarekin. Laster ireki-ko zaigu kalea, laster izango gara libre, gure ohiko presondegira itzultzeko. Baina honaino ekarri gaituen normaltasuna kolokan dago. Orain, denoi dagokigu alde okerrera erori ez dadin bultza egitea. Ezer ez bai-ta, norberarena bakarrik.

LARREAK ZABALIK

Enirio Aralar Mankomunitateak ez du Larre Irekiera Festa egingo, baina gaurtik aurrera larreak irekita egongo dira ardi, behi eta behorrentzat; naturak inoiz baino lasaiago egin du ere bidea, eta «dotore» dago Aralar

Eneritz Maiz Etxarri

Azken urte luzeetan maiatzaren 1a eta Aralarko larreak irekitzea eskutik joan dira. Aurten ere, koronobarisak ez du oztopatuko larreak irekitzea, baina bai zapuztu du Larraitzen egiten zen festa eguna.

Festarik ez da izango, baina Jose Antonio Irastorza basozainaren hitzetan, «ganaduaren jarduera berdin mantenduko da, eta zorionez mendiaren eta naturaren jarduerak berdin jarraitzen du aurrera».

Hasi gabe zeuden festaren antolaketarekin. Horrenbeste urtean ohitura bilakatutako festa ez egiteak pena puntua ematen diola aitortu du, baina bizi dugun egoeraren aurrean garrantzia kendu dio.

«Larreetara igoera normal antzean egingo da, baina behin igota ere, hemen behean, etxeetan ditugun betebeharrak horiek jarraitu beharko dituzte. Hau da, bakar antzean ibili beharko dute», argitu du. «Mendian gaudela eta, ezin dugu pentsatu mendian ez dagoela gaitzik. Ezin dugu engainatu», azpimarratu du.

«Agintariek gai asko dituzte esku artean, eta ganaduzaleen kontua, antza, ez dute jorratu. Ez dugu inongo agindu edo gomendiorik jaso», adierazi du basozainak. Enirio Aralar Mankomunitatetik bai, aurten, artzainek eta ganaduzaleek animalien joan-etorriak egiteko osasun gidak lortu beharko dituzte. «Legez egin beharreko kontua da. Ustiatoki batetik bes-

tera, edozein animalia mota mugitu ahal izateko gida egin beharra daukazu», azaldu du. Mankomunitateko lehendakariak izenpetuta ganaduzale guztiei igorri zaiela agindua esan du Irastorzak: «Aurten betearaztea eta aplikatzea erabaki da». Kontuan hartu behar dela dio, Aralarko mendia ustiatoki handi bat dela; ez urte guztikoa, baina bai hilabete askotakoa.

Beraz, Aralarko mendira doazen heinean gidak egin beharko dituzte animaliak mendira eraman ahal izateko, eta berriz ere, behin Aralartik behera datozenean, osasun gida egin beharko dute ustiatoki batetik bestera animaliak mugitzeko. «Gida bidez jakinarazi egin beharko dute noiz igoko dituzten animaliak». Maiatzaren 1ean irekitzen dira larreak, baina ia maiatzaren erdira bitartean luzatzen da igoera. Guztira 130 abeltzain dira baimenduak. 37 dira artzainak, eta 17.311 ardi igoko dira Aralarko larreetara. 35 behizaleak izango dira, eta hauek, 985 behi izango dituzte Aralarren. Azkenik, 58 behorzalek ere Aralarrerako bidea egingo dute, eta 862 behorrek izango dute datozen hilabeteetan Aralar Parke Naturala bizileku.

Aralar mendiari begira jarrita, beste behin ere «dotore» dagoela aipatu du basozainak. Denean ez dagoela berdin belarra argitu du, baina azken asteetako



euriak asko lagundu duela dio: «Elurra kentzen joaten den moduan, belarra ere behetik gora osatzen joaten da». Animaliak neguan ez egoteak larreei laguntzen dien moduan, jendearen joan-etorririk ez izateak ere eragin duela azaldu du. Bidezidor batzuetan belarra ere jaio da. Puntu batzuetan, bidean zoazela despistatzeraino jaio dela azaldu du. Txindoki mendiak jende asko hartzen du, eta basozainaren hitzetan «honez gero susmo txarra hartuta dago jenderik ez dabilelako». Jendearen joan-etorririk ez izateak Aralarri «mesede» egin diolakoan dago.

Natura bizirik dagoela dio, «ederra dago», eta goran bezala behean adierazi du. Era berean, ez duela inbidiarik sortu nahi argitu nahi izan du, eta azpimarra jarri du, momentuko egoera dela eta, «ditugun aginduak bete beharrean gaude».

Amasan, Komizarrera

Amasa-Villabonako Udalak ere azken urteetan Maiazaren Lehenean Larre Irekiera Festa egin izan du, Amasan. Komizarrera ganadua igotzeko festa izan ohi da, baina toki guztietan bezala, festarik ez da izango.

Aldiz, ganadua larreetara igotzeko arazorik ez dute izango herriko ganaduzaleek.



luz Larraitzen egin zen Larre Irekiera festako une bat, behin atek zabaldua. **I. SAIZAR**

GIDEN DERRIGORTASUNA

Adur Ezenarrok Enirio Aralar Mankomunitatearen izenean gutun bat helarazi die ganadua Aralarko larreetara igotzen duten hainbat abeltzainei, mankomunitatetik baimenak bideratzeko osasun gida eskatuz. Larreen irekierarako egun gutxi batzuk baino geratzen ez direnean, gidak martxan jarzteak zailtasunak dituela aintzat hartuta eta giden derrigortasuna ganaduzaleen ahalmen eta logistika kontutan hartuta egokitu behar denez, aurreko urteetako prozedura berdina mantentzea eskatzen dugu, prozedura berriak ezartzeak sektorearekin lanketa eskatzen duelako.

2019an IBR gaitzaren aurkako osasun programa martxan jartzeko irizpideak finkatu zituen 554/2019 Errege Dekretua argitaratu zen. Programa hori sektoreko eragileek eskatuta garatu da Gipuzkoan, IBR gaitza desagerrarazteko helburuarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta sektoreak adostu zuten abelgorriei bakarrik eragiten dien IBR gaitza dela eta abelgorriek mendietara igotzeko edo ferietara joateko osasun gida atera behar izatea. Mankomunitateko lehendakariak jakinarazitako erabakia, aldiz, ez da ez sektorearekin ez aldundiarekin ez eta mankomunitatea osatzen dugun udalerriekin landu.

Behien kasuan gidaren premiazko beharrak zentzua badu eta sektorearekin aldundiak egindako lanketan horrela adostu zenez, abelgorrien azienden jabeak jakitun ziren osasun gida beharrezkoa izango zela aurten behiak larreetara eramateko. Gainerako kasuan, berriz, -ardiak eta behorak- IBR gaitzak eragiten ez dienez, osasun gidaren ezarpena ez da hain premiazkoa. COVID-19a dela eta nekalz bulegoetara izapideak egitera ez joateko eskatzen den momentu honetan, hain denbora gutxirekin, behor edo ardi jabeak izapide horiek egitera behartzeak ez du inolako zentzurik.

Gauzak horrela, eskatzen dugu, egoera aintzat hartuta, aurten ere aurreko urteetako prozedura berdina mantentzea prozedura berriak sektorearekin lanketa bat egin gabe inposatu orde.

Jon Zubizarreta (Abaltzisketako alkatea) eta mankomunitateko beste lau ordezkari

ESNEA SOBERAN, ARDIAK AFERAN

Azken asteetan ardi gazta gutxi saltzen ari dela argudiatuta, industriak jakinarazi du bere hornitzaileei esne gutxiago erosiko dietela. Ondorioz, herritarrei dei egin die EHNEk, mamia egiteko esnea edota gazta eros dezaten, artzainek soberakinak izatea ekiditeko.

Josu Artutxa Dorronsoro

Euskal Herriko Nekazarien Elkartek salatu berri duenez, ardi gazta industria ahalik eta esne gutxien erosten ari da, jokabidea «kezkarria» dela esanez. Azken asteetan gazta gutxi saltzen ari direla argudiatuta, industriak jakinarazi die esne gutxiago erosiko dietela bere hornitzaile diren artzainei, bestela ganberak gaztaz beteko zaizkielako.

Sindikatuak azaldu duenez, urtebeterako kontratuek finkatzen dute bi aldeen arteko harremana, modu horretara, artzainak jakin baitezake industriak zenbat esne erosiko dion eta zer preziotan. Hala ere, klausula batek dio industriak baduela aukera gutxieneko kantitate bat besterik ez erosteko. Gipuzkoako EHNEren arabera, «koronabirusaren ondorioz gazta gutxiago saltzen ari direlako ari dira esne gutxiago erosten».

Lorea Muguruza Gipuzkoako EHNEko komunikazio arduraduna da. Dioenez, naturan matematika kontuek beti ez dute balio. «Nahiz eta artzain batek ehun litro aterako dituela aurreikusi, beti gehiegizko kantitate bat egon daiteke, izan ere, gehienez %10eko edo %20ko desfase bat egongo dela adosten da. Hortaz, litro kantitate jakin bat zehaztu arren, gauzak okertu daitezke. Gutxienez 90 litro eman diezazkioket, eta asko jota 110. Ez da gaixotasunik izan ukuiluetan, ez du eguraldi txarra egin, eta hortaz, ar-

diak ez dira ari esne gutxiago ematen», argudiatzen du Muguruzak.

Bertakoa lehenestearen garrantzia

Artzainei gutxieneko esne kantitate bat erosteak, gainera, bigarren mailako ondorioak ekar ditzakeela nabarmentzen dute. «Esne kopuru handi bat geratuko zaie soberan, ez aurrera ez atzera. Jendeak soberakin hori erosiz gero, hobe, irabazten aterako direlako». Ondorioz, herritarrei dei egiten die artzainen ardi gazta nahiz mamia egiteko esnea erosteko, nahiz eta guztiek hori egiteko aukera berdina ez izan.

Muguruzaren ustez, bertakoa kontsumitzen dugun momentutik aurrera, ohartzen gara zer lehenesten dugun. «Era batera edo bestera, herriko ingurumena eta ekonomia lehenesten dituzu. Artzainik ez balego, latxa ardiak ez luke zentzurik. Horregatik, kontsumitzen duguna lau urtez behin ematen den bozka baino askoz garrantzitsuagoa da, ekonomia bat hobesten duzualako, eta ekonomia horretan garrantzitsua da zeure burua non kokatzen duzun jakitea. Bertako gazta edo esnea erosiz gero, ziur bueltan beste zerbait ere jasoko duzula».

Administrazioak zerbait gehiago egin dezakeenaren aldekoa da Muguruza. «Zer lehenesten den eta laguntzak nori ematen zaizkion aztertu beharko lukete, ez delako lehenesten herritarrak elikatuta egotea, aire garbia arnastea edota ur garbia izatea. Politikariek ez dute hori bermatzen, eta sektoreari laguntzeko baurrekoak jantzi beharko lituzkete. Lantegietara la-



nera bidaltzen gaituzte, eta zu ekoizten aritzea lehenesten dute, baina bost axola zaie zer jaten duzun».

Oinarrizko behar baten hornitzaileak

Orain arte, eta oro har, nekazaritzak bizi izan duen egoera «larria eta etengabea» dela gaineratzen du. «Ez da erraza arazo honi konponbideak edo alternatibak aurkitzea, baserri bakoitzak kasuistika desberdin bat duelako». Guztiak aztertzen eta soluzio errazak topatu nahian ari direla aitortzen du. «Ez dago formula miragarririk. Esnea komertzializatzeko oso neurri zorrotzak hartu behar izaten dira. Ezin duzu esnea hartu eta kalera jaitsi. Bestetik, pasteurizatzeko nahiz ontziratzeke makina bereziak behar dira».

Ondorioz, arazoari modu batera edo bestera aurre egiteko, Muguruzak argi du artzainek bi aukera bakarrik dituztela. «Ardiek eman dezaketen esnea galdutzat ematea, edota makinak izanez gero, pasteurizatzeta edo ontziratzea. Guk beti hobesten dugu gazta artzainei erostea, baina kasu honetan, bertako (industriako) gazta, teoriar saldu ezin duten hori, erostea oinarrizkoa izan daiteke artzainen etorkizunerako».

EHNERen arabera, gainera, industriaren jokabidea kalte handiak eragiten ari die baserritarrei, gastu gehienak jada eginak dituztelako. «Betiko kontua da, eta ez koronabirusaren beste ondorioetako bat. Beti

izan gara bereziak gure lan egiteko moduagatik. Autonomoentzako diru laguntzak bideratu izan dira, baina baserritarrak badirudi ez garela existitzen. Sarritan kexatzen gara, itsutasun ikusgarri bat dagoela baserritarrekiko, langile gisa. Autonomo bezala pentsatzen jartzen garenean, iturginak, igeltseroak, tabernariak etortzen zaizkigu burura. Gu, ordea, ez gaituzte aintzat hartzen ezartzen diren neurrietan. Ezin dugu gure jarduna eten, naturaren erritmoaren arabera delako. Porru bati ezin diogu esan ez hazteko, ezta ardi bati umerik ez egiteko ere».

Hori dela eta, lehen sektoreak etengabe aldarrikatzen du ekoizten duena oinarrizko zerbait dela: elikagaia. «Etxean sartuta geratu garenean, supermerkatuetako apalak hustu dira. Zergatik? Herri honetan benetako hondamendi bat etorriko balitz, zer jango genukeen pentsatzen hasi beharko genuke. Hori baserritarrei eskaini zaien tratua onorioa da. Baztertuz gero, ez genuke jatekorik izango. Sarritan ez gara konturatzen atzeritik ekartzen ditugun produktuekin zer sustatzen ari garen. Peruko zainzuriak hemengoak baino merkeagoak badira, hausnarketa bat egin beharko genuke. Zer demontre ordaindu zaie baserritar horiei? Kanpokoak etengabe esklabismora behartzen ditugu, baina hemengoak ere bai. Sistema txar baten ondorioa da, baina hausnartu beharreko kontua».

Nazkatuta nago



AINHOA MENDILUZE



Nazkatuta nago koronabirusaz. Denbora asko da kontuaz nekatzen hasi nintzela. Hasieran, konfinamenduak ekarritako ero-haizea izan zen. Etxean giltzapetzera behartu eta berehala, saldoka hasi ziren zabaltzen konfinamenduaren egoera xelebreenak erakusten zituzten bideoak: bizilagunak leiho batetik bestera tenisean, jarduera fisikoa komuneko paperarekin, auzokideak bingora jokatzeko... Hilabete geroago, koarentenaren klasiko bihurtu dira.

Geroago, koronabirusaren datuak bilakatu zitzaizkidan amesgaizto. Datuak topatzen nituen nire inguruko zokondo guztietan. Hasieran kutsatuak-hildakoak kutsatuak-hildakoak bikotearen errepika sentitzen nuen berlarri atzean, baina azkenerako, kutsatuak-hildakoak-sendatuak kutsatuak-hildakoak-sendatuak trinitate hezur-haragizkoa sentitzen dut desinfektantea eskuan niri jarraika. Halako batean, zin egin nion neure buruari nire borondatearen kontra bakarrik bilatuko nituela datuak. Baina alferrik: gutxien espero nuenean eta lekukorik gabeko babesleku batean, hara non topatu dudana nire burua grafiko ditzosoei so.

Gogaituta nago gure bizitza zertan aldatuko den egiten ditugun espekulazioez. Nazkatu naiz agintari politikoaren hitzetan gezurrak biltzeaz, bizitza batzuek besteek baino gehiago balio izateaz. Eguraldi-iragarpenak irain makurrak iruditzen zaizkit, halatsu bidaien inguruko telebistako programak ere. Zergatik dira hustutako hirien irudiak albiste? Eta bizilagun *txibatoak*? Aspertu naiz agintari eta adituen atzean agertzen diren liburuz jositako apalen paisaiaz. Hezurretaraino sartu zait lixiba usaina.

Ezin ditut jasan uniforme berdedunen paparreko kondekorazioak nire muturretan. Gerrak, lehenengo lerroak, heroiak, batailak eta soldaduak metafora kaskar, eta, batez ere, desegokiak iruditzen zaizkit; poesiatik urrun daude, inondik ere, eta ezin bestela, kultura bazterrekotzat duen jendartearen. Oka egiteko gogoia ematen didate «osasun-krisi» deitu dioten honen atzeko interes ekonomikoek; jende askok hau amaitzean topatuko duen lan-egoerak, negargura. Haserre nago Zaldibarren desmemoriaz.

Gaitza gertu egokitu ez bazaigu, gaitz erdi. Baina beste erdia zer? Kolpatu, kolpatzen gaitu egoerari aurrea hartu ezinak. Koronabirusaz ez; ni gaininformazioaz, fikzio inprobisatuaz, metafora maiztuez nago nazkatua, eta susmoa dut ez naizela bakarra.

Telebista itzali, arnasa hartu eta burua fikzio hobez elikatu, filmez eta liburuz; elkarri babesa eman eta elkartasuna antolatu. Ez dago besterik.



Bertatik bertara

Hau bai dela zaila, momentu honetan bidaia bati buruz hitz egitea...

Nahi gabe, aukerarik gabe, baina hementxe gaude. Hilabete hauek etxean pasa ondoren, nora joango ginateke? Hobe esanda, nora joan gintezke?

Hainbeste egun etxean igaro ondoren, edozein aukera ondo legoke, desiratzen baikaude etxetik irteteko.

Egunak aurrera nola doazen aztertu beharko genuke lehenik, baina irizpide guztiak ikusita, urrunegi joatea ez da komenigarria izango momentu honetan; hortaz, beti ere segurtasuna bermaturik egin beharko genuke gure hautua.

Gure proposamena nekazal turismo etxe bat izan liteke.

Bai Zarautzen, bai Gaintzan, bai Seguran... momentu hauetan gutxienekoa da non, baina indarberritu beharrean gaude eta horretarako eskapadatxo edo

aukera txiki bat topatu beharko genuke, leihoak zabaldua soilik bada ere.

Kontua familian edota lagunekin egotea da, lasai eta gainera, natura inguruan baldin badugu, askoz hobe.

Nekazal turismo etxe osoak alokatzen dira edota, nahi izanez gero, logela soilak. Inguruak ezagutzeko edota bertan lasai-lasai naturan egoteko, besterik ez bada ere, aukera polita da.

Irudian agertzen den etxea Sagarmanta izeneko landa hotela da, Zarautzen dago eta ikusi zer-nola-ko ikuspegia duten logeletatik!



VERONICA BALDA, MYRIAM GURRUTXAGA, ENARA ETXEBERRIA



Maiatzaren Lehena, Langileen Nazioarteko Eguna, ezohiko egoera batean dator aurten, koronabirusak eragindako alarma egoera eta krisiaren erdi-erdian; gehiengo sindikalak, hala ere, gaurko eguna baliatuko du eraldaketa sozial baten hasiera izango den aroa abiatzeko.

Jon Miranda

Aurreko urteetan ez bezala, aurten irudi komun bat izango dute euskal gehiengo sindikaleko sindikatu guztiek, Maiatzaren Lehena, Langileen Nazioarteko Eguna ospatzeko. «Kapitalak marraztu nahi digun etorkizun beltzaren aurrean, guk bizitza erdigunean jarriko duen etorkizuna marraztu nahi dugu, etorkizun koloretu eta dinamikoa», adierazi dute ELA, LAB, ESK,

Steilas, Hiru eta Etxalde sindikatuak eta etxeko balikoietan ikurra zintzilikatzeko deia luzatu diete herri-tarrei, «langileen indarra eta aldarrikapena ikusarazteko».

Egungo salbuespen egoerak «mezu komuna» behar duela uste dute gehiengo sindikala osatzen dutenek, baina hala ere, eragile bakoitzak beren ekitaldi propioekin ospatuko du eguna. Hori bai, hautatutako



ALDAKETAK DATOZ MUNDURA

irudia presente egongo da sindikatu bakoitzak argitaratzen dituen kartel digitaletan, bideoetan eta abarretan.

‘Bizitza erdigunera’ LABek

Aurtengo Maiatzaren Lehena ezohikoa izango da, ez baita manifestaziorik izango. Horren ordeztu, LABek auto karabana bat egingo du eskualdean, eta oinarritzat dituen lantokietatik pasako da, hango langileei babesa adierazteko. Beste leku batzuetatik ere igaroko da, «kapitalaren interesak soilik defendatzen dituztenak kritikatzeko». Tolosaldean Usabaldik abiatuko da kotxe karabana eta eskualdeko hainbat herri zeharkatuko ditu. Ondoren, 12:30ean, Internet bidez zabalduko du LABek bere mezua.

Sindikatu abertzalearen ustez, kapitalaren eta bizitzaren arteko borroka da aste hauetan ikusi duguna: «Patronalaren mesedetan egindako kudeaketa zentralizatu eta autoritarioa batetik; herria, herritarrak, auzokideak, bizilagunak, ingurukoak zaindu nahi dituen komunitatea bestetik». LABek esan du egunotan ikusitakoak erakutsi duela zeintzuk diren, benetan, bizitza sostengatzeko ezinbesteko lanak, «eta ikusi ditugu, gehienetan, emakumeak lan horiek egiten», gaineratu du.

Langile askorentzat garai zailak direla azpimarratu du LABek. «Batzuk kaleratuak izan dira, beste batzuk eskubide murrizketak pairatu dituzte eta askok ziurgabetasunez begiratzen diote etorkizunari». Osasun sistema publikoa zenbateraino ahulduta dagoen era-

Euskal gehiengo sindikalak gaur erabiliko duen irudia. **ATARIA.**

kutsi du azken asteotako krisiak eta LABek uste du orain ikusi ditugula zaintza lanak «pribatizatu eta azpigaratu» izanaren ondorioak.

Kapitalaren eta bizitzaren arteko borroka hori irabazteko, bizitza erdigunean jarriko duen eredu ekonomiko eta sozial berria sortzeko, orain, inoiz baino gehiago, langileek euren burua antolatu behar dutela uste du LABek. «Egunotan ikusi eta ikasi dugu, gure lanak mugitzen duela mundua eta, era berean, gure lanak eraldatu dezakeela mundua». Arazo zehatzei erantzuna ematearekin batera, langile klaseak alternatiba bat eraikitzeke gaitasuna duela dio sindikatuak.

Horretarako eraldaketarako ardatzak proposatu ditu LABek: «Herritar orori lan, pentsio eta bizitza duina bermatzeko premiazko neurriak; osasun eta zaintza sistema publikoa sendotu eta osasun nahiz zaintza baliabide oro publikatu; aberastasuna birbanatu eta eskubideak bermatzeko baliabideak eskainiko dituen politika fiskala ezarri; ekoizpen eta kontsumo eredua birpentsatu eta demokratizatu, eko-sozialismoaren eta feminismoaren oinarriak aintzat hartuz; eta herri burujabetza bermatuko duen Euskal Errepublika eratu». Norabide horretan, urtarilaren 30eko greba orokorraren bidetik, eraldaketaren aldeko indarrak biltzearen garrantziaz ohartarazi du LAB sindikatuak.

Garbiñe Aranburu idazkari nagusiak «osasuna eta pertsonen beharrak lehentasuna diren» normaltasun prozesu bat aldarrikatu du. «Normaltasun berri bat nahi dugu, baina ez aurrekora itzultzea dakarren normaltasun bat, bizitza

«Ikasi dugu gure lanak mugitzen duela mundua eta, era berean, gure lanak eraldatu dezakeela mundua»

LAB



duinari bide ematen ez ziona eta planeta txikitzen jarraitzen zuen normaltasuna».

‘Bizitza gara’ ELAk

Aurten langileek ezingo dituzte kaleak hartu, bildu eta besarkadak eman elkarri. Tolosaldean ELA sindikatuak ez du mobilizaziorik iragarri gaurko, baina adierazi du langile klasearen antolakuntzan sindikatuaren erabakitetasuna eta konpromisoa «are handiagoa» izango dela. Gehiengo sindikalarekin batera, M1 koloretsu bat margotzeko deia luzatu du sindikatuak eta bide batez, salaketa eta aldarrikapenak plazaratzeko baliatuko du gaurko eguna. Mitxel La-kuntza ELAko idazkari nagusiak gaur,



12:00etan bideo baten bitartez helaraziko die afiliatuei mezua.

ELAk gogoan izan ditu Euskal Herrian eta mundu guztian koronabirusak jota hil direnak. «Badakigu historian zehar Maiatzaren Lehenaren ikur izan dela. Elkartasunak, berdintasunak eta borrokatzeko konpromisoak adierazten dute milioika pertsona langile klaseari atxikitzen zaizkiola eta haren parte direla». Sindikatuak nabarmendu nahi izan du zer-nolako «injustizia humanitarioa» den hainbeste pertsonen heriotza, «behar bezalako osasun arreta izan ez dutelako eta segurtasun neurririk hartu ez delako».

Abagune berri bat zabalduko dela uste du ELA sindikatuak eta etorriko di-

«Funtsezkoak diren sektoreei balioa eman behar zaie, lan horiek prekari-zatuta egon baitira orain arte»

ELA

ren mehatxu eta erasoei aurre egiteaz gainera, aldatetarako aukerak sortzeko garaia izango dela aurreikusten du. «Aldaketa handiak behar ditugu: austeritate politika alde batera utzi; bizi jasangarriak; zaintza lanari garrantzia eta balioa aitortu; zerbitzu publikoak eta oinarritzko lanen balioa indartu; gure ekonomia lurraldean errotu globalizazioaren aurka...».

Justizia eta iraunkortasunerako bide bakarra begitnantzen zaio ELAri: «Trantsizio sozial, feminista eta ekologistan aurrera egitea». Horretarako mobilizazio soziala, aliantzak, elkarlana eta kalean langileek agertzen duten indarra dira euskal gizarteak dituen ondasun handienak sindikatuaren ustetan.

Horregatik gaurko egunez egingo diren agerraldi-tan, kapitalismoaren porrota salatuko du sindikatuak eta erantzun kolektiboaren beharra azpimarratuko du. Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak koronabirusak sortutako krisiak utzitako mezuaz jardun du: «Argi geratu da bizitzarako funtsezkoak diren sektoreei balio politikoa eman behar zaiela, lan horiek prekarizatuta egon baitira orain arte». Osasungintza, erresidentziak eta elikadura sektorea aipatu ditu, besteak beste, eta austeritate politika eta pribatizazioe-

kin amaitzea eskatu du, langileentzat enplegua eta segurtasuna bermatuz. Lakuntzak baieztatu duenez, aurten Maiatzaren 1ean agerian geratuko da, inoiz baino gehiago, zer den benetan garrantzitsua gizarte batean eta zer ez. Zentzu horretan, sektore publikoa indartzeko unea heldu dela azpimarratu du. «Ekonomiaren lidergo publikoa beharrezkoa da, soilik publikoak aterako gaitu krisi honetatik».

«Oso negatiboa da langilearentzat aldi baterako erregulazioa»

ARANTXA JAUREGI ETA MIKEL ZABALA
SAM ENPRESAKO LANGILE ORDEZKARIAK

Eustatek biztanleria aktiboari buruz egindako inkestan jasotzen denez, martxoko azken hiru asteetan Araba, Bizkai eta Gipuzkoan biztanle aktiboen %36,6 ez zebilen lanean (lehen halako zazpi); izan ere, Hego Euskal Herrian 32.236 lan erregulazio espediente aurkeztu dira, ia denak aldi baterakoak. Dosier horiek 232.825 langileri eragin diete, tartean, Tolosako SAM lantegikoei.

J. M. Tolosa

Langile ordezkariak dira Arantxa Jauregi (Zaldibia 1957) eta Mikel Zabala (Tolosa, 1965) SAM enpresan. Haiei tokatu zaie zuzendaritzak hasiera batean aurkeztutako aldi baterako enplegu erregulazioa negoziatzea eta langileentzat baldintza hobekak lortzea.

Zuen jarduna funtsezkotzat jo dute baina ez zarete lanean ari.



Arantxa Jauregi

«Erabaki traumatikoak guretzat izaten dira langileontzat, haiek bereari begiratzen diote bakarrik»

Arantxa Jauregi: Apirilaren 3an aldi baterako enplegu erregulazioa ezarri ziguten, ez pandemiak eragindako ezinbesteko kausagatik, arrazoi ekonomikoengatik baizik, lan kargak gutxitu zaigulako.

Mikel Zabala: Alarma egoera ezarri eta hurrengo astean normal jardun genuen lanean. Martxoko hirugarren astean aipatu ziguten erregulazio espedientea aurkezteko asmoa.



Ezkerrean Zabala eta eskuinean Jauregi, Tolosako SAM enpresako langile ordezkariak. **J. M.**

Aurkeztu zizueten aldi baterako enplegu erregulazioarekin konforme al zeundeten langileak?

A.J.: Ez. 60 egunekoa zen proposamena eta urte amaiera bitarteko enplegu erregulazioa jarri ziguten mahai gainean. Gainera konpentsazioei begiratuz gero, ezer ez ziguten eskaini. Langileak langabeziara gindoazen gure eskubideak murriztuta.

M.Z.: Oso negatiboa da langilearentzat horrelako aldi baterako enplegu erregulazio bat, ekonomikoki begiratuta. Positibotik ez du ezer. Komunikabideetan zorteko bezala jartzen gaituzte, baina gu etxera bidali gaituzte eta ez da guk aukeratutako zerbait izan.

Aurkeztutakoarekin konforme ez eta ABEEaren baldintzak negoziatu zenituzten.

A.J.: Bai. Osasun egoerak horretara behartuta telematikoki hiru bilera egin genituen martxoa buka-

ran, hemengo eta Madrilgo enpresa buruekin. Aurreneko bileran ez ziguten ezer eskaini, bere horretan mantendu zen zuzendaritza, eta jarrera itxi hori ikusita bigarrenengo oso gaizki bukatu genuen, mahaitik altxatuta. Hirugarren bileran adostasun bat nahi zutela sumatu genuen eta negoziazioa bideratu ahal izan genuen. Haien azkeneko proposamena ez zen guretik hainbeste aldentzen eta akordiora iristea lortu genuen.

M.Z.: Guri, langile ordezkarioi, akordio ona iruditzen zitzagun baina ez gara inor besteen izenean ezer erabakitzeke. Beraz, banan-banan hots egin genien langileei egoeraren berri emateko, eta segurtasun neurriak mantenduz, batzar bat egiteko aukera izan genuen. Egin zitzaigun azken proposamenari baiezkotza ematea erabaki genuen asanbladan.

Zertan hobetu duzue enpresak egiten zizuen lehenengo eskaintza?

A.J.: Normalean kotizazio oinarriaren %70 dagokio langileari, ohiko langabezia sarietan bezala. Kopuru hori %80ra igotzea lortu dugu. Oporrak mantendu egingo ditugu, baita urtean jasotzen ditugun hiru lan-sari bereziak ere, hiru hauek ere oinarriaren %80tik gora. Gero kontratuaren etenaldiaren iraupena gehienez 60 egunetik, gehienez 45 egunetara jaistea lortu dugu.

M.Z.: Osasun krisiaren testuinguruan lana murriztu zai-

Mikel Zabala

«Ez dakigu zertan izango garen, aurreko krisia ederki baliatu zuten kaleratzeak egiteko»



gulako erabaki du enpresak erregulazio espedienteak aurkeztea, baina inork ez daki zer gertatuko den epe luzera. Pentsatzekoa da produkzioa martxan jarriko dela pixkanaka. Aste honetan makina batzuk martxan jarri dira eta langile batzuk lanera itzuli dira, adibidez.

Kontentu zaudete emaitzarekin?

M.Z.: Gure lantegia Tolosan dago baina enpresa handiago baten parte da eta Tompla multinazionalaren menpe dago. Horrelakoetan, lan delegaritzan ez diete erreparatu handirik jartzen enpresa handi horiek aurkeztutakoari, nahiz eta langileon kalterako izan.

A.J.: Aurretik ere izan ditugu ika-mika gogor samarrak enpresa zuzendaritzarekin. Kasu horietan langileak beti agertu gara mahaian esertzeko prest eta saiatu gara alternatiba ezberdinak planteatzeko, nahiz haien gustukoak ez izan. Enpresa buruek beti errazenera jotzen dute eta erabaki traumatikoenak hartzen dituzte. Traumatikoak, hala ere, guretzat izaten dira, langileontzat, haiek bereari begiratzen diote bakarrik.

Ziurgabetasun handia sentitzen duzue etorkizunera begira?

M.Z.: Bai, ez baitakigu zertan izango garen. Aurreko krisia ere, 2007-2008koa ederki baliatu zuten despi-doak egiteko. 20 lagun kaleratu zituzten eta ordutik langile talde finkoa 38 lagunek osatzen dugu. Gainerakoan, puntualki sortzen diren beharretarako, aldi baterako langileak baliatzen ditu enpresak. Ez du enplegua egonkortzeko batere ahaleginik egin.

A.J.: Enplegu erregulazio hau negoziatzerako orduan puntu batean txertatu nahi izan genuen baldintza hori: urtebetean kaleratzerik ez egotea. Nik neuk aipatu nien bileran eta erotzat hartu ninduten.

M.Z.: Ez dugu enpresan etorkizuneko ikuspenik antzematen. Lan talde heldua da SAM lantegian dagoena eta erreleborik ez dute aurreikusten, ez dituzte langile gazteagoak trebatzen. Epe laburrean, adina bete eta aurre-erretiroa hartuko dute langileetako askok, dirua galduz eta dagokiena baino gutxiago jasoz.

ABEE-ak: OHIKO GALDERAK

Zer dira aldi baterako enplegu erregulazioak?

Enpresa batek bere langileen kontratuak eteteko edo murrizteko Espainiako lan legediak ematen duen aukera bat dira. Haien helburua da lan gutxi dagoenean enpresak ez kaleratzea langileak, baizik eta langileei eustea, egoera konpondu bitartean. Bi motatako aldi baterako enplegu erregulazioak daude: lana murrizten dutenak eta kontratuak eteten dituztenak. Azken horiek ugaritu dira azken asteetan, ekonomiaren geldialdia teoriarik aldi baterakoa delako.

Zer eskubide dute kontratua etenda duten langileek?

Ez dute lanera joan behar, eta langabezia saria jaso dezake, teknikoki langabezian ez egon arren —enpresarekin duten kontratua ez dago hautsita, etenda baizik—.

COVID-19arekin lotutako ABEEk zer berezitasun dute?

Espainiako Gobernuak erabaki du alarma egoerak irauten duen bitartean aldi baterako erregulazioak laguntzea. Erregulazioan dauden langile guztiei eman-

go die langabezia saria, horretarako nahikoa kotizatu ez dutenei ere. Gainera, orain jasoko duten langabezia saria ez da deskontatuko sari horretako eskubideetatik. Langilearen Gizarte Segurantzaren kotizazioaren zatia ordaindutat joko du, eta enplegatzailearen zatiarekin bi aukera daude: enpresak 50 langile baino gutxiago baditu, estatuak hartuko du bere gain; hortik gorako enpresak, berriz, kotizazioaren %25 soilik jarri beharko du.

Zenbatekoa da saria?

Kotizazio oinarriaren %70 dagokio, ohiko langabezia sarietan bezalaxe. Kotizazio oinarria osatzen dute soldata gordinak eta aparteko sarien zati proportzionala. Baina muga batzuk badaude: langileak gutxienez 502 euro jasoko ditu hilean, eta gehienez 1.098 euro. Baina seme-alabak beren kargura dituztenek diru gehiagorako eskubidea dute. Lanaldia txikitzeko espedienteetan, berriz, proportzionala da laguntza: lanaldia %50era jaitsi bada, langabezia saria erdia izango da.

Oporrei eragiten die?

Erregulazioan dagoen aldian langileak ez ditu oporretarako eskubideak irabazten.

BORROKA EGIN ETA GERO, AKORDIOA

Asteasuko Siemens-Gamesako txandakako langileak apirilaren 20an itzuli ziren lanera, zuzendaritzarekin akordioa sinatu eta gero. Hilabete pasatxo eman dute greba mugagabea eta Josu Zubillaga langileen ordezkariak eredugarritzat jo du denbora honetan egin duten borroka: «Enpresa multinazional handia da gurea, oso handia, baina gure txikitik demostratu dugu integritatea dugula, inor kaltetu gabe merezi dugunaren alde egiten jakin dugula. Borroka honek erakutsi digu duintasuna dela gehien balio duena».

2018 bukaeran iraungi zitzairen ituna, eta 2019 hasieran hasi ziren berria adosten. Asteasun lanean jarraituko zutenaren ziurtasuna nahi zuten langileek eta aurreko urtearen bukaeran egindako zenbait lanuzte eta mobilizazioen ondoren lortu zuten enpresak lan bermea eskaintzea. Berehala agertu zitzairen bigarren harri txintarra negoziazioetan: txandaka aritzen diren langileen eta lanaldi zatikatua duten langileen arteko aldea. Hori murrizteko borroka abiatu zuten martxoaren hasieran Siemens-Gamesako Asteasuko erreleboetako langileek.

Asteasuko plantan, 202 langile ari dira, eta horietatik 132k egiten dute lan txandaka. Langile horiek martxoaren 9an abiatu zuten greba mugagabea. «Denbora honetan guztian zuzendaritzak beste eskaintza batzuk egin dizkigu, baina beste langile batzuen eskubideak murriztea proposatzen ziguten txandakakoenak hobetzeko. Ez dugu beste inoren gaizkia bilatu nahi gure onuraren alde eta harro gaudela, egoera samurra izan ez arren hilabetez eutsi ahal izan diogulako. Borroka eginez gero galtzeko arriskua duzu, baina ez baduzu egiten, balduta zaude».

«Borroka eginez gero galtzeko arriskua duzu, baina ez baduzu egiten balduta zaude»

JOSU ZUBILLAGA



Zuzendaritzaren azken proposamena apirilaren 20an jaso zuten eta batzarrean bilduta ia aho batez eman zioten baiezkua. Zubillagak akordio «ona» dela dio eta azpimarratu du 2019-2022 lan itunean txertatzeko konpromisoa idatziz jaso dutela. Hiru puntu adostu dituzte: «Gutxien irabazten dutenei igoko zaizkie gehien soldatak, lortu dugu lan sari

txikiena zutenei KPIa eta kantitate handiago bat igo-tzea. Bestalde lan baldintza gogorak ditugunontzat, edo lan fisikoena eta zikinena dugunontzat, plus batzuk erdietsi ditugu. Amaitzeko, gauez eta asteburuetan lan egiten dugunok, atsedeen gehiago izan dezagun, 2021 eta 2022rako lanaldi murrizketa batzuk adostu ditugu».

Negoiazioan agertu zaizkien bi eragozpen nagusiak gainditzea lortu dute Asteasuko langileek eta adostutakoak txertatuta 2019-2022 ituna «lehenbailehen» onartzea espero du Zubillagak.



Denda ONLINE baserriakm0.eus

Euskal baserrietako haragia, zure etxera

Etkez etxeko zerbitzua



Erosi HEMEN

Km0 baserria

[baserriakm0](https://www.baserriakm0.eus)



Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

Maiatzak 6 eta 7

Ate Irekiak On Line

17:00etatik - 20:00etara



Izena eman

943 65 11 47

@TolosaldeaLH

www.facebook.com/tolosaldea

@Tolosaldeahii

www.tolosaldea.com



MULTIOPTICAS

ZABALIK GAUDE

Alarma egoeratik
MULTIOPTICAS GIPUZKOA
zerbitzu presentziala
eskaintzen aritu da.

Gure optikak segurtasun
neurriez hornitu dira
tolosarren ikusmen beharrei
eratzuna emateko.

Gure zentruak
ohiko zerbitzu optikoak
eskaintzen dihardute.

**ZURE IKUSMEN OSASUNA
ZAITZEN DUGU**



R.P.S. 175/45 I.L.G.

ORDUTEGIA

ASTELEHENA - LARUNBATA

9:30 - 13:00

Arratsaldeak: kontsultatu

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA



www.multiopticas.com

ETXEALDIA ARINDUZ

Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneak Konfinamendua arintzeko bertso txapelketa antolatu zuen. Dagoeneko saridunen izena ezaguna izango dute askok, baina euren lanez gozatzeko aukera dago segidan.

Apirilaren 19a bitarte jaso ziren hogeita sei lanen artean ondorengoak dira saridun bihurtu direnak. Sari gisa, Harituzek argitaratuko duen material sortako karpeta eta koadernoan azaletan grabatuko dira irabazleen bertsoak.



Zaharrak kalean, haurrak etxean
egiten zaigu arraro
lehenengoentzat baita haurrentzat
baino arriskutsuago.
Pertsonak eta eskubideak
aldatu dira zeharo:
orain kalera ateratzeko
txakurren beharra dago;
umeak ditu txakurrak baino
eskubide gutxiago.

UMEEN MAILAKO IRABAZLEA
BEÑAT MATEOS ZEBERIO (ASTEASU)

Etorkizuna begi aurrean / ta iragana mamituz
Orratza eta errima hartuta / bertsolaritza harituz.

Barruan sartu maitasun paper / hiru bertso, lau errima
beti soinean eraman dezadan / bertsolaritzaren arima.

Lehen kopla bat lehen potoa / ta lehen hanka luzea
ze polita den haur gazte batek / bertsoa ezagutzea.

Bakoitzak badu bere helmuga / eta bere helburua
baina elkarrekin apain dezagun / euskararen ingurua.

Hartu arkatza, lehen orria / ta jarri martxan burua
sortu dezazun koadernotikan / bertsoaren liburua.

Etorkizuna begi aurrean / ta iragana mamituz
orratza eta errima hartuta / bertsolaritza harituz.

HELDUEN MAILAKO IRABAZLEA
ANE ZUBIA ARANALDE (IBARRA)

Ardiak ihesbide



JONE ALBERDI
IKASLEA

Une historiko batean bizitzea ez da izenak irudikatzen duen bezain liluragarria, ondotxo dakigu guk hori. Etxeko lau paretak ez dira inoiz hain antzekoak izan eta alde handia dago Frantziako iraultzaren parte izatearen eta hilabete pasatxo etxean eramatearen artean. Hala ere, badira oraindik, monotoniaren barruan, irribarreak loratzen dizkiguten gertakariak.

Ez daukat itxialdiak ekarri dituen alde onak zerrendatzen hasteko asmorik, lehenik eta behin, ez dudalako pentsatzen ezer onik ekarri duenik: ez dut uste gazteek etxean giltzapetuta egoteko beharra genuenik aitona- amonei maitasuna adierazteko; bizilagunekin topo eginenez gero, lehenago ere agurtzen genituen; eta gurasoak bananduta ditugunok, ez genuen aitarengandik (edo amarengandik) urrunduta egoteko premiarik zeinen garrantzitsuak diren jakiteko.

Eta hala ere, badira egunerokotasunari kolorea ematen dioten gertakariak. Askorentzako orduak iraun ditzaketen bideo-deiak dira, beste batzuentzat egunkaria erosteko kalera irten behar diren momentua, eta badira eguneko une sakratua ohean bota eta serie bat ikusteko garaia dela iritzi dutenak.

Bakoitzak bere trikimailuak ditu ez aspertzeko; hala, esan dezaket Izaskungo maldan ardiak agertzen direnekoa dela azken aste hauetako nire une gogokoenetako bat. Ondo irakurri duzue bai, ardiak dira nire konfinamenduko izarrak!

Egunero, non dauden begiztatu ondoren, hasten da amona eta bion artean kalaka. Ezer baino lehen, eguneko gaia zein den aztertu behar da, ondoren, sakabanatuta badaude, haserre dauden edo harrapaketan jolasean dabiltzan erabaki behar da. Azkenik, nola ez, nik ikasketetara bueltatu behar dut eta amonak bazkaria egiten jarraitu.

Hamabiak aldera egiten dugun etenaldia da, elkarrekin barre batzuk botatzeko aurkitu dugun bidea. Txorakeria irudituko zaizue, huskeria, agian, inguratzen gaituen eromenaren aldean; baina eguneko hogeita lau orduak etxean sartuta igarotzen ditugunez, agian ez da ideia txarra ardien arteko elkarrizketak imajinatzen hastea (nahikoa seriotasun bada telebistan). Batek daki! Beharbada, hau dena bukatzean haiekin elkartuko gara eta, azkenean, jakingo dugu ea haserre zeuden edo jolasean ari ziren!

**Esan dezaket
Izaskungo
maldan ardiak
agertzen
direnekoa dela
azken aste
hauetako nire
une gogokoe-
netako bat**

Ur joanari, presarik ez



**AMAIA KARRERA
GARCIA**
INMAKULADA
LANBIDE
IKASTOLAKO
IRAKASLEA

Gizartearen Psikologian Identitate Sozialaren teoria eza-guna da. Garatzen duen funtsezko ideia da kategoria sozial jakin batzuetako kide izateak alderdi garrantzitsuak dakartzala subjektuaren identitate indibidualerako. Hau da, talde pertinentziak eta talde-arekin ezartzen dugun erlazioak, hein handi batean, nortzuk garen erabakitzen du.

Gogoan dut urtarrila hasieran Txinan epidemia kontrolatzeko hartzen ari ziren neurriak, besteen artean itxialdi neurriak gehien harritu ninduela. Hori gaitasuna, hori! Lekutan ikusten nuen nik errealtate hura. Geografikoki ez ezik, emozionalki oso urruti nengoen.

Maiz entzuten dugu, gure mundu hau azkarregi doala. Produkzio-eredu sozioekonomikoek ezarrituzten lan erritmoak ez dira bio-erritmoekin bateragarriak... Hondamendi bat gertatu behar izan da gelditzeko, horrek dakarren ondorio guztiekin. Ondorio ezkorrak modu gordinen pairatzen edo pairatuko ditugu. Denok.

Haatik, gelditu gaitezkeela ere ikusi dut eta gelditzeko izugarrizko premia dugu. Ez dezagun aukera pikutara bidali. Gelditu behar gara, begiradak pausatu behar ditugu. Esentziala dena lehen plannora ekarri, ikusteko eta begiratzeko. Ez dut uste itxialdiaren ostean gauzak aldatuko direnik, izan ere, gauzak aldatzen ari dira jada, eta guk eszenatoki horretan protagonistak edo harietatik zintzilik dauden txotxongiloak izan gaitezke, gure esku dagoen aukera da.

Zuekin (gurekin) partekatu nahi dudana berri on bat jaso dut ere; nire ama bizi den egoitzan ez da

Hara non, egun batetik bestera, esku-frenoari eman diot eta izugarrizko muturrekoa hartu ostean, ‘espabilatzen’ noa. Etxetik.

Horregatik, populazioaren gaineko kontrol hertsia aplikatzen duen *Txina komunistan* horrelakorik gertatzea ez ninduen harritu, itxialdiaren neurria logika horren barruan sartzen nuen, gizarte hartan onartu nezakeen; alabaina, hemen? Eskubide indibidualak blindatuta ditugun gizarte moderno eta demokratiko honetan? Baita zera ere! Gure askatasuna eta erabakiak hartzeko autodeterminazioa galdu baino lehen zain eta muin defendatzeko prest dagoen men-debaldar gizartean, inoiz ez!

Hara non, egun batetik bestera, esku-frenoari eman diot eta izugarrizko muturrekoa hartu ostean, *espabilatzen* noa. Etxetik.

koronabirusa sartu. Langile eta egoiliar guztiek negatibo eman dute. Itxialdia amaitzean ziztu batean joango naiz amari muxu ematera eta bide batez bertan dauden langileei euren lana, esfortzua eta maitasuna eskertzeraz. Osasun krisiak lehertu aurretik lan-baldintzak hobetzeko urte eta erdiz greban egon den plantilla, salbuespen egoeragatik, gure aita-amengatik, greba eten egin dute lanera joanez. Gizatalde horren ereduak, egoiliar zein langile, banako hobe egiten nau eta horren parte izan nahi dut.

Ea denon artean eszenatoki atseginagoa eraikitzen dugun. Animo eta eutsi goiari!

Zergatik, zergatik, zergatik...? (eta 2)



**IÑAKI AZALDEGI
ARRIETA
OINEZKOA**

Hilda bero, salda gero?

Zergatik ez dute niretzat ize-nik txoriek? Eta zuhaitzek? Zergatik dira niretzat hegazti handi guztiak zapelatz?

Iaz Espainiako futbolari ospetsu bat 215 kilometro ordutako zihoala autoan istripua izan eta bere burua zein lehengusua hil zituen. Zergatik hartu zuten txaloka buru gainean

baloi huts bat besterik ez zuena?

Elizak bere izenean jarritako ondarea berea izan gabe zeruan sartuko ote?

Zergatik jartzen gara urduri euskaldunok euririk ezean?

Justizia berantiarra justizia al da? Popo Larre, Napparra eta Perturren gorpuzkiak non sartu zituzten? Zergatik ez dute adierazten lekua?

Gogoan al duzue kafe hutsaren garaia? Zergatik konplikatu dugu kafearen gaia?

**Zergatik hiltzen ditu
goseak 25.000 lagun
egunero, hau da,**

**holokaustoa urtero, urtero,
urtero...? Besteekiko
axolarik eza delako
sapiensaren
ezaugarrietako bat?**

Egia ote da gaixotasun larrietan pazienteak ingurukoak baino gehiago sufritzen duenik?

Izatetik ez izatera egiten dugun bidea tunela izan beharrean Erromako zubia balitz, zeinen ederki, ezta?

Neguaen ondorengo urtaroa, SARS-CoV-2a? Edo COVID-19a?

Zergatik hiltzen ditu goseak 25.000 lagun egunero, hau da, holokaustoa urtero, urtero, urtero...? Besteekiko axolarik eza delako sapiensaren ezaugarrietako bat?

Lurra gaixotu dugu eta bere sendatzearen bidean mendekua hartuko du sapiens ez hain sapiensaren aurka? Glaziarrek urtzen, bero neurrigabea Suedian udan, urakanak, espezieak desagertzen trumilka, uholdeak, tifoia..., poliki baina badator mendekua, ezta?

Zergatik galdetzen dizkiot horrenbeste kontu neurri buruari lasaiago bizi beharrean?



KARLOS LINAZASORO
POETA

Arropa zaharretan kabitu nahi niken

Arropa zaharretan kabitu nahi niken,
neure arropa zaharretan gelditu,
arbola lo gelditzen den bezala,
gora begira baina betiko lurrean,
xahututako galtzetan,
betiko besterik behar ez dudala,
ez erloju, ez hitzordu ez ezer;
arropa zaharren usain garbian,
jaio gintunaneakoan beharbada,
hire alboan altzo eta neke,
amak egindako jertse gris argian,
ez gerorako, ez etorkizunaren jagole,
orainaren miserian eta edertasunean bizitzeko,
dena berria balitz bezala, jaiogabea,
herri hustuen pauso gorrikaretan
eta sakonago ere bai, barrurago,
ibai amiotikoetako ihes liluragarrian,
Eta beti hirekin, sorbaldaz sorbalda,
begiz begi dena birrintzeraino,
ezpainenetako mozkorra, osinen gatza,
misterioa, ezkien dardara,
bezatu genitinan urretxorien hegada.



HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus
661 678 818

ERABAKI ZURE BIDEA

Ate Irekien Jardunaldia ONLINE

Maiatzak 9, larunbata, 11:00etan

Eman izena www.goierrieskola.eus helbidean eta ezagutu
ezazu [Lanbide Heziketako](#) gure eskaintza

- [Goi Mailako zikloak](#)
- [Erdi Mailako zikloak](#)
- [Oinarrizko LH](#)

Goierri • • • •
eskola

www.goierrieskola.eus

Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062



Miguel Urbistondo Ferrer
GIDATZEN GAITUEN ARGIA



**JON IMANOL
ETXABE**
SEXOLOGO ETA
PSIKOLOGOA


‘KOTIMITATEA’ HELBURU

Guztiok dakigu, modu batera edo bestera, zer den intimitatea. Badakigu, baita ere, sustatu eta landu beharreko zerbait dela, bai norberarekiko, bai bikotearekiko. Intimitatea arimaren espazio pertsonal goxo moduko bat bezala uler daiteke, zuk erabakitzen duzuna zenbat zabaldu, norekin... Burbuila bat (eta zu barruan) bezala irudika daiteke: zure muga bat adierazten du, barruan zaudenean isolamendu moduko bat sentitzen duzu (kontzienteki bilatua, kasu honetan), bertan puzker bat (pentsamendu zirikatzaile bat) botaz gero, zuk bakarrik jango duzu... Intimitatea burbuila bat balitz, barruko bolumena handitu eta norbait barruan sartzeko gaitasuna izango genuke (bere burbuilarekin bat eginaz) eta bere burbuilan etxean sentitzen ez denak postura aldatu dezake (profesionalen laguntzaz batzuetan) eta erosoago sentitzea bilatu. Intimitateak txikitako jolasetako *Etxe!* hori izan behar

du, norberak aurki dezakeen lekurik seguru eta goxoenetako bat da.

Bada, Z jenerazioak (1996 ondoren jaioak, gaur egun 23-24 urte dituztenetatik behera) ez du inolaz halako atxikimendurik bere intimitatearekiko. Komunikazio kodeak, *Etxe!*-aren kokapena, erosotasun beharrak... guztiz aldatu dira, eta duela urte batzuetatik hona sare sozialetan Extimitatearen fenomenoak ikusi dezakegu: intimitateari zegokiona publiko egitea. Munduari nortzuk eta nolakoak diren adierazteko beharrari erantzuna emanez sortu da fenomeno hau eta etengabe ikusi dezakegu sare sozialetan: *Instagram story*-ak erosketak egitera doazelarik, *selfie* bat du txatik irten bezain laster, zuzeneko bat bazkaltzen du-





ten bitartean jendearen galderak erantzuteko... Hau guztia helduenentzat astakeria bat da, eta sareari dioten ezezaguntasunean oinarritutako beldurrarekin batera ulergaitza da beraientzat bizitza-argitalpen askatasun hori, intimitatea hain estimu txikian izatea. Egia da batzuetan gazte horiek ez dituztela oso garbi Interneten arriskuak (identitate lapurreta, estortsioa...) eta horregatik sexologia saioetan sare sozialei eta aztarna digitalari ere eskaintzen diogu denbora, burbuila lehertu aurretiko gehienezko zabaltzea topatuz.

Intimitearen bi aldaera horiek ulertzea ez zaigu zailegia egiten, baina itxitura egoera honetan fenomeno berri batekin topatu naiz, eta oraingo ereduan ahokatu ezin dudanez, gure gremioko oso kontu ohi-

ko
bat egin
dut: hitz berri bat as-
matzea. Beraz, jaun-andreak,
haur eta gazteak, *Kotimitatea* aurkezten
dizuet: espazio mugatu batean intimitate ezberdi-
nen arteko fusioatu gabeko elkarbizitza. Etxe bere-
an hiru, lau, bost, sei... pertsona elkarrekin, 24 orduz
bizitzeak asko zailtzen du intimitate uneen topaketa.
Bi pertsona badira, bikotea edota lagun-mina izate-
ko aukera dago (intimitate fusioagarriak, intimitate
horien elkarbizitza eramangarria da), edota gutxie-
nez etxearen bi muturretan jarrita pairatu ditzakete
zailtasun horiek. Jende gehiago denean eta intimita-
te hori ezin denean topatu ezinegon asko sortu dai-
tezke: herstura, itolarri sentsazioa, isolatzeko beha-
rra... Beraz, *kotimitatea* bilatzean dago gakoa, norbe-
rak bere intimitate burbuila hori izan dezan eta,
horretarako, komunikazioa da giltza. Guztiok dugu
intimitate beharra, erotikatik harago: lasai egoteko,
norberak bere buruarekin hitz egiteko, gustuko duen
zerbaitekin gozatzeko... eta guztiok dugu intimitate
horretarako eskubidea. Zure etxean zure intimitate
beharrak zapalduak izaten ari badira, aldarrika itzazu
adierazpen-solasaldi (asertibo) batean, eta harrituko
zaitu bakarra ez zarela ikusteak.



«HONDARRETATIK ERAIKITAKO SORMEN LAN BAT DA»

RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA
IDAZLEA

Konfinamendu egoeran honetan, 'Ataria'-k irakurzaletasuna sustatzeko proposamenak luzatzen ari da, 'Letren Errepublika' irratsaioa abiapuntu hartuta.

Jon Miranda - Rebeka Calvo Gonzalez

Ruben Sanchez Bakaikoaren (Zaragoza, Aragoi, 1975) lehen nobela da *Hondarrak*. Protagonista Xabier Sanz Surio *Tupa* da, 27 urte eman ditu kartzelan, eta espetxe-ko egunerokotasuna kontatzen duen bitartean, bere arbasoen lurraldean kokatutakoak biltzen ditu ere.

Behar batetik sortu al da liburu hau?

Bai. Ez nuen inoiz pentsatu horrelako liburu bat idatziko nuenik. Duela urte batzuk seguru ezetz esango nukeela, ez neukan buruan. Baina duela zazpi urte pare bat gauza gertatu ziren. Batetik, amaxiren memoria galera hasi zen, eta horrek berari hainbat galdara egitera akuilatu ninduen. Bestetik, euskal gatazka dago, 2010tik hona alderdi armatua indargabetu ahala, gure bizitzak baldintzatuta egon dira, eta bat-batean ikusten duzu egunerokoa aldatzen doala. Hor-tik zerbait ateratzeko nahia edo beharra ere banuen.

Post-gatazka deitzen zaion aro honetan zure ekarpena egiteko gogoia ere bazenuen hortaz, izan ere protagonistaren ahotan iritzia ere badago.

Argi dago gatazkan protagonista nagusietako batzuk etakideak izan direla, eta borroka armatu topiko politiko hori, eragin dituen gauza guztiekin. Horrelako pertsonaia bat nahi nuen, ez horrenbeste diskurtso politiko bat garatzeko, baizik eta pertsonaia horretan murgiltzeko; ETAn oso gazte sartu, kartzelan urte asko... ezagutu dezagun nolakoa den pertsonaia hori. **Tupak 27 urte ematen ditu Espainiako Estatuko espetxeetan zehar, eta ibilbide hori kontatzen du nobelak; amorrua, kezka, dolua... eta batez ere, bizi-rauteko presoak baliatzen dituen mekanismo asko kontatzen dira liburuan.**

Nik esango nuke espetxearen gaineko nobela edo kontakizun bat dela. Kasu honetan espetxean dagoen-

na etakide bat da, baina pasarte gehienetan espetxea eta preso bat da ikusten dena. Zenbait momentutan bere alderdi ideologikoa agertzen da, baina batez ere espetxea kanpora atera nahi nuen.

Aipatu duzun beste alderdia ere hor dago, memoriaren ariketa hori: Tuparen amatxi da Pilar, Uxue herrikoa, ama Julia ere boldada batean bertan bizi izan zen, eta memoria galtze hori dago. Zergatik baliatu nahi izan duzu belaunaldi arteko lotura hori?

Abiapuntua gure amatxiren memoria galera izan zen, niri beti gustatu izan zait kontu zaharrak entzutea, baina modu kontzienteago batean, apunteak hartzen eta abar, duela urte batzuk hasi nintzen. Nobelako protagonistak espetxean sartzean ikusten du berak familiari eragiten diona. Ikusten du bere senitartekoen bizitzak baldintzatuta daudela berak hartu duen bide batengatik. Orduan berak familiarekiko zor hori kentzeko edo, bere arbasoen gaineko lanketa hori egiten hasten da.

Eta gerra garaian esaterako, falangistekin lerratuta-koak ETAn militatzen daude, adibidez.


Eman dezake oso gauza arraroa dela, baina ez da horrela eta ez da kasu bakarra. Zenbait kasutan bi belaunalditan ere pasatu da; aitita-amamak frankisten alde lerratu eta ondorengo belaunaldia kontrako lubakian jartzea. Paradoxikoa da. Kasu askotan ez da informazio transmisiorik egon.

Galerei buruzko nobela bat dela esango zenuke?

Hondarrak izenburuak ondo laburbiltzen ditu galera horiek; memoriarena, gerrarena, belaunaldien arteko transmisioarena, gatazkarenak eta abar. Ez nuke esango ezta ere nobela negatibo bat denik, hondarrak agertzen dira, baina hondar horiekin eraikitakoak ere azaltzen dira. Nobela bera hondar horietatik eraikitako sormen lan bat da. Hondarrei buruzkoa da, eta baita hondarrekin jolastekoa ere.

Nola egin duzu lan? Nola antolatu zara?

Duela zazpi bat urte egon nintzen lehen kontuak biltzen, eta hortik tarteka hartu eta utzi egin dut. Dokumentatu ere egin behar izan dut, bai espetxearen inguruan (preso eta preso ohirekin hitz egiten) eta bai-



‘HONDARRAK’

TXALAPARTA
ARGITALETXEA
Amaur bilduma.

360 orrialde.

2019.09.02 argitalpen
data.

ta Uxueri buruz ere. Uxue nahiko urruti izan dut beti, jaso dudana amatxiren bidez jaso dut.

Liburuak ‘gipuzkoazentrismotik’ ateratzen gaitu ere...

Niri oso polita egin zait. Uxuen hondarrak hitza bera amatxiren eskutik entzun izan dut, *hondarras del café* eta horrelakoak entzunda. Noizbait hitz egindako hizkuntzaren hondarrak jaso ditut, alegia. Niri oso ederra egiten zait inguru horretako euskarazko bizimodu eta eguneroko bat irudikatzea, Uxuek irudikatzen duen euskara, hango usaina... eta ederra da irudikatzea duela mende batzuk Uxue herria euskalduna zela.

Nobelako kontakizunean tartekatzen dira eskutitzak, egunerokoak, erromantze zaharren pasarteak eta noski, bertsoak. Espetxean zaletzen da Tupa bera.

Dokumentazio lan horretan ageri izan zaizkit horrelako kasuak; euskal preso gehienak Herrera de la Mancha zeudenean pilatuta euskara ikasteko barnetegia zuten, bertso eskola, adizkaritxo bat... eta izan dira pertsonak kartzela barruan euskaldundu direnak eta kartzela barruan hasi direnak bertsoan. Nire protagonista Gasteizkoa izanda, eta euskara gaztaroan ikasitakoa izanda, bertsolaritzarekin zaletzen da ere.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Berriz ere giro nahasia izango dugu. Goiza beste behin lasaia izango da, hodei eta ostarteekin eta hego-mendebaldeko haizearekin. Tenperatura igo egingo da eta giro atsegina izango da, altuenak 21-22 gradutan kokatuko dira. Arratsaldeko lehen orduan haizeak ipar-mendebaldera egin, zerua estali eta euri zaparrada batzuk izango ditugu. Orokorrean euri zaparradak ahulak izango dira, baina puntualki indartsuak. Euriarekin batera tenperatura freskatuko da.

LARUNBATA

Antzeko giroarekin jarraituko dugu. Berriz ere goiza lasaia izango da. Hodei batzuk zabaltu arren, ostarte batzuk ere ikusiko dira eta orokorrean giro nahiko argia izango dugu. Haizeak berriz ere hego-mendebaldetik joko du eta horrekin termometroak nahi-ko balio epeletan mugituko dira, altuenak 22-23 gradutan errendituz. Arratsaldean berriz ere haizeak ipar-mendebaldera egin, zeruan hodeiak nagusitu eta euri pixka bat egingo du, zaparrada tartekatuta eta ahul modura.

IGANDEA

Giro egonkor eta nahiko beroa. Euri kontuak atzean utzi eta giro lasaia izango dugu egun osoz. Zeruan goi-hodei dezente agertuko da egun osoan, beraz zeru urdin-urdinik izaterik ez da espero. Hala ere, giroa argia izango da. Haizeak ekialdeko ukitua hartuko du eta erdi-mailako geruzetan aire beroa sartzen hasiko denez, termometroek gora egin eta bero puntu bat harrapatuko dute, 25-26 gradu.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



ZORIONAK

Lizartzatik senide eta lagunaren partez, zorionak eta urte askotarako, Gari. Maitasunak mugarik izan ez dezan, Osasuna eta Askatasuna. Denak Etxera!!!

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95 • ataria@ataria.eus

San Esteban 20 Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

MAIATZAK 1, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6 behe 1. 943 67 51 18.

MAIATZAK 2, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. J. Mari Etxebeste Elozegi.
Gernikako Arboren lorategiak, 3.
943 65 10 40

MAIATZAK 3, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Marta Olarreaga Aranburu.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
943 67 24 38.

MAIATZAK 4, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**

BATXILERGOA

matrikulazio-epea

IREKITA

Maiatzaren 4tik 22ra
943670311 (9:00-12:00)

herrikide12-18@herrikide.eus

herrikide.
ikastetxea



Nafarroa etorb.
13 behea. TOLOSA
670 417 922
943 65 0313



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

XVIII SAGARDO TXAPELKETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA SARIAK



2019 IRABAZLEA



ANOETA ITURTXULO

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKU
2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA PAREGABEAK
GARAI HAUETAN HAINBESTE ESKERTZEN DIREN TERRAZA HANDIEKIN!
BETE ZURE AMETSA ETA INFORMA ZAITEZ KONPROMEZURIK GABE!

